

2014KO BAGILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2014ko bagilaren 26an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- GORKA RENTERIA GARAI
- MIREN LUKE VERDES CEARRA

AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA zinegotzia ez da bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2014KO MAIATZAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2014ko maiatzaren 29an ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietan akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON

Gai honeri hasikera emoteko, idazkari jaunak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

179/2014.- Komunitate bateko etxeko aurrealdea eta eskoiako albo lorategi modura egokitzeko obrak egiteko lizentzia ukatzea.

180/2014.- Gurpildun aulkiagaz etxearen atzealdera sartzeko obra lizentzia.

181/2014.- Kultur Etxeko gela erabilteko baimena emotea.

182/2014.- Kultur Etxeko gela bat erabilteko baimena emotea.

183/2014.- Motor Beach antolatze baimena emotea.

184/2014.- Leiho bi eta baranda bat aldatzeko udal lizentzia.

185/2014.- Egurra atarateko lanak dirala eta, enpresa eskatzaileari bidean itxitako material begetala kentzeko agin-deia.

186/2014.- Enpresa bateri film baten errodateja egiteko baimena emotea.

187/2014.- Aurretiaz emandako 175/2014 dekretua baliogabete bidezko ebazpena.

188/2014.- Urteurren bat ospatzeko baimena emotea futbol-zelaian eta probalekuan.

189/2014.- Espediente bat hastea pertsona bizi Biztanleen Udal Erroldan baja emoteko.

190/2014.- "Ikastxiki" surf ekitaldia egiteko baimena emotea.

191/2014.- EUSKALTEL NESKEN SURF BILTZARRA egiteko baimena emotea.

192/2014.- Aparejadorearen eszedentzia-eskabideari uko egitea.

193/2014.- Errotulu bat aldatzeko baimena emotea.

194/2014.- Kredituak aldarazteko espedientea onestea, kredituen gaikuntzaren araubideari jarraituz, beti be 12.519,26 euroan.

195/2014.- Hiru pertsonari baja emotea biztanleen udal erroldan.

196/2014.- Udalerrri honetan 2015. urtean tokiko jaia irailaren 29a izateko proposamena egitea.

197/2014.- AXI URDAIBAI KANPUSA antolatze baimena antolatze baimena emotea.

198/2014.- Udalekuak antolatze baimena emotea.

199/2014.- Kultur Etxeko gela bat erabilteko baimena emotea.

200/2014.- Lursail bat banatzeko baimena emotea.

201/2014.- Fatxada bat margotzeko udal lizentzia emotea.

202/2014.- Kredituak aldarazteko espedientea onestea, kredituen gaikuntzaren araubideari jarraituz, beti be 563,49 euroan.

203/2014.- Berraztertze errekurso bat ukatzea eta urtarrilaren 35/2014 dekretuaren edukia berrestea.

204/2014.- Jaubeen komunitate bateri Kultur Etxeko bideo-gelea erabilteko baimena emotea.

205/2014.- Jaubeen komunitate bateri Kultur Etxeko bideo-gelea erabilteko baimena emotea.

206/2014.- Balkoi bateko sabaiak konpontzeko udal lizentzia emotea.

207/2014.- Horma barriak egiteko eta ixteko udal lizentzia emotea.

208/2014.- Komun bat konpontzeko udal lizentzia emotea.

209/2014.- San Joan bezperako sua egiteko udal baimena.

Felix Jauregizar zinegotziak galdetu dau ia zergaitik ez dan aztergai zerrendan sartu 187/2014 dekretuan aitatzen dan udal aurrekontuaren aldarazpena.

Aitor Apraiz alkateak dinotso aldarazpena informazino batzordean aztertu eta hurrengo udalbatzan aurkeztuko dala.

Felix Jauregizar zinegotziak dino: aurreko udalbatzar baten aitatu genduan obren lizentziak eskaria egiten zanetik hainbat denbora pasau ostean emoten zirala, eta oraingo zerrendako dekretuak aztertu ezkeru, ohartu gara lizentziak emoteko epea murriztu egin dala, hile biko epe barruan emonaz.

3.- L EREMUARI JAGOKON ARAU SUBSIDIARIOEN ALDARAZPEN ZEHATZA HASIKERA BATEAN ONETSI.

Zinegotziak espedientearen jakinaren ganean dirala eta, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanetarako eta Hirigintzako Zuzendariaren 2014ko bagilaren 20ko txostena; izan be, bertan jasoten dan ondorioa hauxe da:

Bakioko Udalari jada Foru Aldundiko Ingurumen Sailak bere eskaera kontuan hartu duela jakinaraztea, 2014ko maiatzaren 15eko 821. Foru Aginduaren bitartez udal-eskea onartu eta Zuzendaritza honen txostena aipatzen zen foru-aginduko bigarren atala deuseztatzea erabaki baitu. Era berean, Bakioko Udalari ondorengo argitzea:

irizpenaren edukia informatiboa zela eta bakarrik behin betiko onartzeko izapidean, espedientearen balorazio teknikoa eta legala ikusirik, onartzeari buruzko egokitasuna edo desegokitasuna zehaztu ahal izango dela

Hortaz, Aitor Apraiz alkateak dino ez dagoela “L” eremuko arau subsidiarioen aldarazpena hasikera batean onartzeko eragozpenik.

Felix Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO taldearen izenean, dino jakin gura doguna da Foru Aldundiak bigarren txosten hori zer dala-eta egin dauan.

Alkateak erantzun deutso haxe esanez:

Foru Aldundiak eragozpenak ipini ebazan; izan be, adierazo euskun Bakioko arau subsidiarioen hainbat aldarazpenen ondorioz etxebizitza mordoa egin dala eta etxebizitza gehiago egitea ekarriko dauan aldarazpen gehiagorik ez dagozala prest onartzeko, eta, hortaz, egin behar dana arau subsidiarioen berrikustea dala.

Guk Aldundiari esan geutson batetik, “L” eremuko arau subsidiarioen aldarazpena hain neurri txikikoa izanik, ez deusola nabarmen eragiten, gaur egun onartutako eraikigarritasunari eta etxebizitza kopuruari. Izan be, helburua ez da eraikigarritasuna gehitzea, aldarazpenaren ondorioz sortutako lursail eraikigarrien salmentatik eratorritako diru iturriak Solozarre eremuko SZR 1-1 lursailaren nahitaezko desjabetzea ordaintzea baino, bai 2013ko udal aurrekontuan, bai eta aurrekontu horren 2014rako luzapenean be aurreikusita dagoan modura.

Eta, bestetik, adeirazo geutson be, herriko urigintzako planeamendua berrikusteko erabagi hartu genduan ezkerro, urigintzari buruzko legediaren arabera, aldarazpena egin ahal dala.

Hori dala eta, Foru Aldundian esan euskuen aldarazpena tramitatzeko, baina espedientearen argudio horreek behar dan lez justifikatzeko, aldarazpena, behin betiko onartzeko, Foru Aldundian aurkeztu orduko.

Felix Jauregizarrek dino: *Foru Aldundiaren 2014ko bagilaren 20ko txostenean ez da adierazoten aldarazpena ahal dala tramitatu, dinona da lehen emondako erispenaren edukia informatiboa izan zala, eta, beraz, ez zala loteslea, besterik ez; baina horrek ez dau esan gura Foru Aldundiak aldarazpenari ezetza emongo ez deutsonik. Lehen be udalak aldarazpena hasikera baten onartu baeban, egoerea berdina izango zan.*

Felix Jauregizar zinegotziak aitatutako SZR 1-1 lursailaren nahitaezko desjabetze espedientearen egoerari buruz galdetu deutso Idazkariari.

Hori dala eta, Idazkariak dino:

SZR 1-1 lursailaren nahitaezko desjabetze espedienteari 2013ko zezeilaren 28an hasikera emon ondoren, herriko taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaraturako iragarkien bidez, espedientea jendaurrean ipini zan, eta hartutako erabagiaren barri “Jose Antonio Olabarri Construcciones, S.L.” enpreseari emon jakon eta ez eban alegaziorik aurkeztu.

Horren ostean, prozeduraren bigarren fasea, hau da, lursailaren balio justua zehazteko tramitazioak egin eta, ondoren, okupazio-akta sinatu eta balio justuaren ordainketa egin behar ziran, baina ordurako “L” eremuko lursailak salduta egon behar ziran, eta, danok dakigunez, hori ez da gertau. Prozedura oso hori sei hilabete barruan amaitu behar zan, baina amaitu ez dan ezker, horrek lursailaren jaubeari balio justuaz gain interesak ordaindu beharra ekarriko dauz.

Idazkariak adierazo dau be, L eremuko arau subsidiarioen aldarazpenean ageri diran lursail eraikigarriak lehiaketaren bidez salmentan ipini aurretik egin beharreko tramiteak honexek dirala:

L eremuko arau subsidiarioen aldarazpena hasikera baten onartu, hilabetez jendaurrean ipini (horretarako Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, egunkari baten eta herriko taulan ragarkiak ipiniz), Eusko Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen aldeko txostena jaso, udalak aldarazpena behin-behinean onartu eta, azkenik, Foru Aldundiak behin betiko onartu.

Ostean, birpartzelazino proiektua eta urbanizazino proiektua onartu.

Azkenik, aldarazpenaren arabera, sortutako lursail eraikigarri biak saldu, lehiaketa publikoaren bitartez.

Tramite hau egin ostean, salmentatik eratorritako diru-sarrerara egongo dan ezker, SZR 1-1 lursailaren balio justua finkatu eta ordaintzeko tramiteak egin ahal izango dira.

Felixek dino tramite horreek guztiak egin behar badira, arau subsidiarioen berrikuspen espedientea lehenago amaituko dala.

Tramitatutako espedientea kontuan hartuz, eta toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan legearen 22,2,c) eta 47.2.11) artikuluen arabera, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz, hau da, korporazinozko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa izanik, Bakioko Udaltatzak, erabagi hau hartu dau:

1.- “L” eremuko arau subsidiarioen aldarazpen zehatza hasikera batean onartzea, beti be, udalaren ekimenez, “Arkigest Estudioa S.L.” enpreseak idatzitako 2013ko abenduaren 26ko egitasmoaren arabera.

2.- “L” eremuko arau subsidiarioak aldarazoteko espedientea izapide horren pean iminteko jendaurreko epe bat zabaltzea, hilabeteko epean, beti be udalaren ediktu oholean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta gitxienez egunkari batean argitaratuz. Epe horren barruan, espedientea eskuragarri egongo da aztertu gura dabenentzat, egokituz jotzen dabezan alegazioak aurkeztukoak aukerea euki daien.

3.- Administrazio sektorialeko jakinarazotea, jakinaren ganean egoteko eta beharrezko kontsultak eta txostenak egiteko; era berean, beharrezko kontsultak eta txosten sektorialak eskatzea. Hori guztiori bagilaren 30eko 2/2006 Legearen 90.5. artikuluz bat etorriz.

4.- Urigintza plangintzaren helburu diran eremuetan lizentzien emotea etetea, beti be indarreko urigintza plangintzaren aldarazpena dakarrezan ezarpenak badaukiez. Etenaldiaren iraupena urte biko izango da. Etenaldiak ikututako eremu hori honako hauxe da: L sektoreko plan partzialean 4. eta 5. joko eremu modura eta hezkuntza eremu modura jasotako esparrua, Txirrikaldeko Bidetik Atxagako Bidera bitarteko kaleetan dagoana. Zehatzago, 792,07 m², eremu libreko toki sistema modura kalifikatua (ZAJ-4 eta ZAJ-5) eta 1.013,88 m² hezkuntza ekipamendu modura kalifikatua ZD lursailean, bai eta 1.592,05 m²ko lursail bat be, udalerrira sartzeko bide nagusiaren ondoan kokatua (Basigoko bide nagusi, San Pelaioko bide nagusi, Urzabal kale eta Barrenkaleko bidegurutzak, udal titulartasunekoak), herrigune barruan.

Etenaldia urte bi igarota iraungiko da eta, edozein kasutan be, arau subsidiarioen izapidetze-prozesuan dagoan aldarazpena behin betiko onesten danean, izapide hori lehenago beteten bada.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

4.- “GAZTEDE BIZKAIA” PROIEKTUAREN ILDOTIK GAZTERIAREN PROIEKTU INTEGRALA EZARRI, SUSTATU ETA GARATZEKO 2014-2015 URTEETARAKO “GAZTEDE MUNGIALDEA” PROIEKTUARI BURUZKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTU.

Horreri buruzko informazioa zinegotziek esku artean daukie; beraz, Felix Jauregizar zinegotziak adierazo dau:

“Gaztedi Bizkaia” proiektuaren ildotik gaztediaren proiektu integrala ezarri, sustatu eta garatzeko, 2012an “Gaztedi Mungialdea” deritxon lankidetzak-hitzarmena onartu zan, ba eta iaz be, eta ez dakigu hitzarmen horrek zelako emoitzak izan dauzan, ez daukagu ezelango daturik, ezta horren jarraipena egiteko be ez dogu aukerarik izan;

horrenbestez, ez daukagu informaziorik hitzarmenaren balorazinoa egin eta horren ganeko erabagia hartzeko.

Aitor Apraiz alkateak dinotso hitzarmenean ageri diran ekintzen epemuga urtebetekoa da eta gaztediari zuzenduta dagoz helburuak beharra, etxebizitza, mugikortasuna, eta abar izanik, eta urtebeteko epea ez da nahikoa ondorioak izateko.

Segiduan, tramitatutako espedienteagaz bat etorriz, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz, hau da, korporazinoen zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa izanik, Bakioko Udaltzaren, erabagi hau hartu dau:

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe eta Mungiako Udalen artean sinatzeko proposatzen dan lankidetzaren hitzarmen onartzea, beti be “Gaztedi Bizkaia” proiektuaren ildotik gaztediaren proiektu integrala ezarri, sustatu eta garatzeko, 2014-2015 urteetarako “Gaztedi Mungialdea” proiektua abiarazoz.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

5.- BAKIOKO TXAKOLINGUNE ZENTROAREN KUDEAKETA OSOA EGITEKO, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BAKIOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTU.

Hitzarmenaren edukiaren barri zinegotzi guztiek daukien ezkerro, udal talde buruek euren eritxia emon dabe.

Horrela bada, Aitor Apraiz alkateak dino: *turismo zentroaren kudeaketa eta interpretazino zentroaren kudeaketa erakunde ezberdinen esku egon diran ezkerro, izan be, bata udalaren ardurapean kudeatu da, eta bestea, barriz, Foru Aldundiaren pean, ondorioztatu da zentro bien koordinazino ezak eta beraz, zentro bakotxa bere aldetik kudeatzeak, “Turismoa-Bakioko txakolina” binomioaren inguruan egon daitekezan zentro bien ekimen bateratuen onurak ez aprobetxatzea ekarri dauzala. Eta, horrenbestez, gabezia hori ikusita pentsau da Turismo zentroaren eta Interpretazino zentroaren kudeaketa bateratua esleitzea, horrela bada, kudeaketaren koordinazinoaren alde egin, bisitariari eskainitako zerbitzuen kalidadea hobetu eta material eta gisa baliabideen razionalizazino egiteko.*

Felix Jauregizar zinegotziak dino:

Hitzarmenean ageri da turismo zentroaren eta interpretazino zentroarena kudeaketak bakotxa bere aldetik egiteak bien arteko koordinazino ezak gabeziak sortu dauzala, baina, BILDUK hori egiaztatzen dauan daturik ez dauka, zergaitik eta, ez bata ez

bestearen kudeaketan, ezta jarraipena egiteko orduan be, ez daualako aukerarik izan. Beraz, EAJk badino gabeziak egon dirala berak jakingo dau zergaitik egon diran.

Beste aldetik, hitzarmenaren betearazpenaren jarraipena egiteko batzordean udalak ordezkari bi izango dauzan ezkerro, eurretariko bat BILDU-BAKIO udal taldekoa izateko hementxe bertan eskabidea egiten dabela.

Alkateak dinotso bere eritxiz batzordeko ordezkariak kultura eta turismo informazio batzordeetako buruak izan behar dirala, baina, dana dala, BILDU-BAKIO udal taldearen eskabidea aztertuko dala.

Horren ostean, Toki Araubideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.p) eta 47.2.j) artikuluen arabera, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoakaz, hau da, korporazinoko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa izanik, Bakioko Udalbatzak, honakoa erabagi dau:

1.- BIZKAIKOA-Bizkaiko Foru Aldundiaren enpresa erakunde publikoaren eta Bakioko Udalaren arteko hitzarmenaren edukia onartzea, beti be Bakioko Txakolingune Zentroaren kudeaketa osoaren ardurea aurrera eroteko.

2.- Bakioko Udaleko Alkateak sinatuko dauen hitzarmen hori akta honeri eranstea

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

6.- 2014KO EKITALDIAREN LEHENENGO 6 HILABETEEI JAGOKENEZ, ZINEGOTZIEK UDAL ORGANOETAN PARTE HARTZEAGAITIK JAGOKEZAN DIRULAGUNTZAK, BAI ETA UDAL TALDEEI JAGOKEZAN DIRUSARIAK BE ONARTZEA.

2014ko urtarrilaren 1etik bagilaren 30era arte zinegotzientzat udal organoetan parte hartzeagaitik proposatzen diran dirulaguntzen eta epe berean udal taldeentzat proposatzen diran diru-sarien barri zinegotziek badaukien ezkerro, Aitor Apraiz alkateak dino ia inork ezer esateko daukan.

Atoan, Felix Jauregizar zinegotziak idazkariari galdetu deutso ia udalbatza honetan gai horren inguruko erabagirik hartu daiteken, gaia ez dala Informazio Batzordean eztabaidatu kontuan hartuz.

Idazkariak dino:

Batetik, Informazio Batzordean gaia eztabaidatu ezik ezin da udalbatzaren gai zerrendan ipini (Informazio Batzordean eztabaidatu ez arren, udalbatzaren aztergai

zerrendan ipini daiteke, baina, ohartarazoz udalbatzak aurretiaz gaia presazkoa dala erabagi behar dauala).

Eta, bestetik, udal aurrekontuaren betearazpen oinarrietan ageri da udalbatzak 2012rako onartutako zinegotziei jagokezan diru banaketak hurrengo urteetan be indarrean jarraituko dabela, aldaketarik onartzen ez dan bitartean: Beraz, ez legoke ezinbestean erabagirik hartu beharrik.

Elsa Imatz zinegotziak adierazo dau diru banaketaren gaia Informazino Batzordeko aztergaiaren artean egon ez dan arren, udalbatzaren gai zerrendan sartzeko aitamena egin zala, eta horrela egin dala ez beharrezkoa dalako erabagia hartzea, gardentasunagaitik baino.

Alkateak adierazo dau bere aldetik ez dagoala interes berezirik oraintxe bertan gaiari buruzko erabagia hartzeko, beharrezkoa ez bada behintzat.

Hori guztiori ikusita, Udalaren Osoko Bilkurak ez dau erabagirik hartu.

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO (Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 91. artikulua arabera).

Félix Jauregizar zinegotziak adierazo dau, “JUAN CARLOS BORBOIKOAREN ABDIKAZIOAREN AURREAN” izenburua daukan mozinoa irakurri eta udalak onartzea gura dauala BILDU-BAKIO taldeak, erabagia hartzeari premiazkoa deritxolako, gaiak daukan garrantzia kontuan izanda.

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa, Frankismotik eratorritako eredu politiko-instituzionalaren krisi sakonean beste urrats bat gehiago izan da. Kolpe Militar Frankista eman zutenek, beraien jardunaren inolako ardura zein ondoriorik nozitu gabe, eta zituzten pribilejio eta botere guneak mantenduz, "lotuta eta ondo lotuta" utzi zuten Estatu botereen etorkizuna. Estatuaren zatiezintasuna aldarrikatuz eta hori hala izan zedin armadari berme funtzioa emanaz itxi zuten erreforma. 1978 ko Konstituzio espainiarra, zeinaren ondorioz Juan Carlos Borboikoa Estatu Buru gisa geratu zen, Euskal Herriak ez zuen onartu. Euskal Herriak uko egin zion konstituzio horri, besteak beste, herri gisa etorkizuna libreki eraikitzeako eskubidea ukatzen zizulako eta benetako haustura demokratikorik ez emateaz gain, Hego Euskal Herria bi eremu administratibotan zatitzen zuelako. Frankismoaren amaieratik eratorritako eredu politiko-instituzional espainiarrak, demokrazia eza, gure herriaren ukazioa eta diktadura frankistarekiko haustura demokratiko eza ordezkatzen ditu.

Eredu politiko hau ordea, ez da gai izan Espainiako estatuaren menpeko herrien zein Estatuko herritarren aldarrikapen demokratikoak geldiarazteko. Gero eta nabarmenagoak eta indartsuagoak dira, estatu espainiarreko nazioek beraien etorkizunaren jabe izateko egindako aldarrikapenak. Atzeraezinezko prozesuak ari dira eraikitzen. Herriak, herritarrak eta eskubide demokratikoak protagonista diren prozesuak hain zuzen ere. Bitartean, eredu politiko-instituzional honen krisiaren adierazle argia da, PP eta PSOEk, eta ordezkatu duten bipartidismoaren zilegitasun eta sinesgarritasun krisia.

Testuinguru horretan eman da Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa. Eta egoera honen aurrean, bistan da, ukazioan eraikitako eta politikoki agortutako marko politiko eta juridiko honi iraunarazteko itxuraldaketa operazio baten aurrean gaudela. Juan Carlos Borboikoaren abdikazioak ordea, ez dakar aldaketarik bere baitan: herrien ukazioan oinarrituriko eredu politiko-instituzionala ez bait da gainditu.

Erreforma inposatu zenean irekita zeuden gatazka politiko guztiak bere baitan mantentzen dira eta Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioarekin batera, 1977an abian jarritako Frankismoaren Erreformaren fasea amaitzea beharrezkoa da. Hori da herri honen aldarrikapena. Abdikazioaren aurrean, benetako haustura demokratikoa emateko unea da. Herrien eta herritarren eskubideak gauzatu ahal izateko. Espainiako herritarrek beraien sistema politikoa erabakitzeko erreferendum-a egitearen alde gaude. Baina Euskal Herria ez da eztabaida horren subjektua. Euskal Herritarrok gure erabakiak geuk hartzeko dugun eskubidearen errespetua aldarrikatzen dugu, etorkizunean libreki gure egitura politikoa eraiki ahal izateko. Herriok dugun erabakitzeko eskubidearen gauzapena nola egingo den erabakitzeko unea da.

Honen guztiaren aurrean, Bakio.....ko udalak honako adierazpen hau onartzen du:

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean, Bakio.....ko Udalak benetako haustura demokratiko baten aldeko aldarrikapena egiten du, Euskal Herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatuz. Era berean, herri honek ez dio inolako zilegitasunik onartzen espainiako Koroaren inongo ordezkariri.

Bizi dugun egoera politikoaren aurrean, gure herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidea eskuratzeko helburuarekin lan egiteko deialdia luzatu nahi diegu Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu, eragile eta herritarrei.

Jarraian, Udalaren Osoko Bilkurak gai hori premiazkoa dala onartu dau aho batez, bertaratutako EAJ/PNV eta BILDU/BAKIO udal taldeetako zinegotziek korporazinoa legez osotzen dabene guztiak izanik.

Azkenik, BILDU-BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Miren Luke Verdes, Jon Peli Hormaecheta eta Alberto Bilbao zinegotziek testuaren aldeko botoa emon dabe.

EAJ/BAKIO taldeko Aitor Apraiz, Paloma de Epalza, Floren Zabala, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotziek, barriz, testuaren kontrako botoa emon dabe.

Ondorioz, mozinoaren aldeko 4 boto eta kontrako 6 boto zenbatu diran ezkerero, Bakioko Udalbatzak ez dau BILDU-BAKIOren mozinoa onartu.

B) Aitor Apraiz alkateak dino EAJ/PNVren izenean, JUAN CARLOS BORBOIKOAREN ABDIKAZIOARI buruzko mozinoa irakurri eta udalak onartzea gura dauala erabagia hartzeari premiazkoa deritxolako, gaiak daukan garrantzia kontuan izanda.

EAJ-PNV udal taldearen mozioa abdikazioaren inguruko mozioen aurrean.

BAKIOKO udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio konstituzioaren erreforma prozesua abian jar dezala, zeinen bidez Estatuko nazionalitate ezberdinek Espainiar Estatuarekin nahi duten harreman mota askatasun osoz erabakitzeke aukera izango duten, hau da, atxikimendua, banaketa edo bitarteko beste formulak; edozein kasutan, nazionalitate horiei atxikitako lurraldeetako hiritarren borondatearen adierazpen zuzenaren bidez gauzatuko direnak, betiere.

Udalaren Osoko Bilkurak gai hori premiazkoa dala onartu dau aho batez, bertaratutako EAJ/PNV eta BILDU/BAKIO udal taldeetako zinegotziek korporazinoa legez osotzen daben guztiak izanik.

Jarraian, Udalaren Osoko Bilkurak EAJ/PNVren mozino hori aho batez onartu dau.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 19:50ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria